ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2020ko otsailaren 26a, asteazkena • 23 zk.

**I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA**

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

# IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko otsailaren 18ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena**

— **Foru dekretua:**

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 6/2020 Foru Dekretua, otsailaren 18koa. Onestea alda dadila ez egoiliarren errentaren gaineko zergaren arautegia, egoitza egiaztatzeari dagokionez, pentsio funtsak eta talde inbertsioko erakundeak direla eta, zenbait salbuespen aplikatu ahal izateko.

— **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 77/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea Kontratu Errekurtsoen Foru Organo Administratiboko kideak berritzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 78/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea kredituak kontsigna daitezela 2020ko ekitaldirako, Arabako Foru Aldundiaren 1, 2, 3, 4, 5, 6, 8 eta 9 eraikinen zaintza eta segurtasun zerbitzua kontratatzeko.

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 79/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea auditoria teknikorako gastua 2020rako, Arabako Lurralde Historikoko herriguneetan eta alde sakabanatuetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzearen jarraipena egiteko.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 80/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onespena ematea Belén González Benito andreak Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendari postua uzteari, hark hala eskatuta, egindako zerbitzuak eskertuz.

Foru Gobernu Kontseiluaren 81/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onespena ematea Juan Felipe García Miravalles jauna Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendari idendatzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 82/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea dirulaguntza ematea Newbor Solutions SL enpresari, langile bat lanaldi osoko kontratu mugagabearekin kontratatzeagatik.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 83/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea 2/2020 konpromiso kreditua sortzeko espedientea, 60.000,00 euroko zenbatekoaz, gastuen egoerako “Higiezinen merkatuari buruzko azterketa” partida sortu berrian, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 84/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko 11/2020 kreditu transferentziaren espedientea eta Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoaren aurrekontuko 1/2020 kreditu gaitzearen espedientea, 153.486,50 euroko zenbatekoaz, Lurralde Orekaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 85/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea 15/2020 kreditu transferentziaren espedientea, 68.008,06 euroko zenbatekoaz, "Mendialdea proiektu pilotua. Inbersioak" partida sortu berria funtsez hornitzeko, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 86/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea 2020 ekitaldiko konpromiso ekonomikoak, Arabako Foru Aldundiak 2020rako bere gain hartutako zorpetzearen ondorioz sortuak.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 87/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea epea luza dakiola Navaridaseko Udalari, aurreikusi ezin diren egoeretan Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak finantzatzeko gai ez diren ezusteko eta larrialdiko obrei aurre egiteko dirulaguntza lerroari atxikitako obra gauzatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 88/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea epea luza dakiola Zuhatzu Kuartangoko Administrazio Batzarrari, aurreikusi ezin diren egoeretan Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak finantzatzeko gai ez diren ezusteko eta larrialdiko obrei aurre egiteko dirulaguntza lerroari atxikitako obra gauzatzeko.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 89/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea A-2120 errepidetik Lacorzanillako industrialdera sartzeko bidegurutzea eta sarbidea hobetzeko eraikuntza proiektuaren obren likidazioa eta gehikuntza, eta gordailututako bermeak itzultzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 90/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea 2020rako gastu kalkuluen dirua kontsignatzea, "Arabako Lurralde Historikoko eskaeren araberako bidaiarien garraio zerbitzua" kontratua luzatzeko, harik eta eskualde garraio sistema esleitu arte.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 91/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea ezetsi dadila interesatuak irailaren 17ko 577/2019 Erabakiaren aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsoa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 92/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea ezetsi dadila interesatuak abenduaren 10eko 789/2019 Erabakiaren aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsoa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 93/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea ezetsi dadila interesatuak abenduaren 10eko 789/2019 Erabakiaren aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsoa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 94/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea Consultora de Recursos Naturales SLren aldeko 2020rako kontsignazioa, "Arabako Lurralde Historikoko ibai eta urtegietan arrain eta karramarro ustiapenerako plangintza eta kudeaketarako eta ibai eta urtegi horietako arrantza zaintzarako laguntza teknikoa" kontratua dela eta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 95/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea alda dadila irailaren 16ko 462/2014 Erabakia, zeinak baimendu egiten baititu Laudioko Udalak egindako zenbait aldaketa bere jabetzako onura publikoko 72 mendiaren (Amestui), 75 mendiaren (Iñarrondo) eta 76 mendiaren (Mostatxa eta Pagolar) hainbat lurzatiren gainean.

LURRALDE OREKA ETA INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILAK

Foru Gobernu Kontseiluaren 96/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea 2020ko urterokoaren kontsignazioa handitzea, Pazos Construcciones y Restauraciones SL enpresaren alde, Antoñanako Vasco-Navarro ibilbide berdearen automotoreen antzinako pabilioia birgaitu eta leheneratzeko obrak direla eta.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 97/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea 2020ko urterokoaren kontsignazioa handitzea, Promociones y Pavimentaciones Balgorza SA enpresaren alde, Delikako bidea egokitzeko obrak direla eta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 98/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Behin betiko onestea "Sobrongo hornikuntza sistema berriztatzeko eraikitze proiektu aldatua: La Playa auzoa – A4326 errepideko bidegurutzea" eta haren obrak prozedura ireki bidez kontratatzeko espedientea, 1.548.063,36 euroko zenbatekoaz, BEZa barne, eta 8 hilabeteko gauzatze epearekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 99/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Behin betiko onestea "Zubilarra eta Fontecha hornitzeko ur biltegi berria egiteko eta goi sarea berriztatzeko proiektua. 2. fasea: goi hoditeria berria" delakoaren lanak prozedura ireki bidez kontratatzea, 1.105.354,95 euroko zenbatekoaz, BEZa barne, eta 8 hilabeteko gauzatze epearekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 100/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea UTE JUNDIZ II enpresaren aldeko 2020ko ekitaldirako kontsignazioa, ontziak sailkatzeko Jundizko instalazioa ustiatzearen truke.

Foru Gobernu Kontseiluaren 101/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onestea Contenedores Escor Vitoria SL enpresaren aldeko 2020ko ekitaldirako kontsignazioa, Arabako Lurralde Historikoan papera eta kartoia gaika biltzeko zerbitzuaren truke.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2020.02.26 06:33:48 Z